

2018/09/29

SUHILTZAILE ESPEZIALISTA

**BIGARREN ARIKETA**  
**Denbora, gehienez: 100 min**  
**Galderak: 100.**

EREDUA:	<b>D</b>
---------	----------

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Hutsegiteak: - 0,33
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan. Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.

**Eskerrik asko laguntzagarrik.**

1.- Aukeratu okerreko erantzuna.

- a) Ohorerako, norberaren eta gizartearen intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da.
- b) Elkarreak desegin edo horien jarduerak eteteko, nahitaezkoa da ebazpen judizial zioduna ematea.
- c) Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan delitu, falta edo arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera.
- d) Bilera baketsu eta armarik gabekoak egiteko eskubidea aitortzen da.

2.- Eusko Jaurlaritza:

- a) Eusko Jaurlaritza Euskal Herriko betearazte- eta administrazio-egitekoak dituen kide anitzeko organoa da.
- b) Eusko Jaurlaritza bertan behera geldituko da Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren, Legebiltzarraren babesa galduz gero edota lehendakaria bertan behera utzi nahiz hiltzen bada.
- c) Jaurlaritzak, modu indibiduallean, Eusko Legebiltzarraren aurrean erantzungo du politikoki bere ekintzez, kide bakoitzak bere kudeaketaren gainean duen zuzeneko erantzukizuna gorabehera.
- d) Eginkizunak utzi dituen Jaurlaritzak bertan behera utziko ditu bere egitekoak Jaurlaritza berria karguaz jabetu arte.

3.- Pertsonak bulego publikoetara agertzea:

- a) nahitaezkoa da, beti.
- b) inoiz ez da nahitaezkoa.
- c) nahitaezkoa da lege-maila duen arau batean hala aurreikusita badago.
- d) nahitaezkoa da ordenantza-maila duen arau batean hala aurreikusita badago.

4.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera, gaiak bideratzeaz arduratu behar duten haien zerbitzuko langileak:

- a) epe barruan berariazko ebazpena emateko obligazioaren erantzuleak dira.
- b) epe barruan isil-bidezko ebazpena emateko obligazioaren erantzuleak dira.
- c) epe barruan ebazpena emateko obligazioaren erantzule penalak dira.
- d) ez dira epe barruan ebazpena emateko obligazioaren erantzule.

5.- Aukeratu okerreko erantzuna. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, jakinarazi beharrekoa da:

- a) administrazio-errekurso bat onartzerik ez dagoela deklaratzeko duen egintza.
- b) organo aholku-emailearen irizpenarekin bat datorren egintza.
- c) interesdunak proposatutako frogak ukatzen duen egintza.
- d) ondare-erantzukizunaren prozedura ebazten duen egintza.

6.- Administrazio-egintzen jakinarazpenak epe honetan igorri behar dira:

- a) Hamabost egun balioduneko epean, egintza eman deneko datatik.
- b) Hamabost egun naturaleko epean, egintza argitaratu deneko datatik.
- c) Hamar egun balioduneko epean, egintza eman deneko datatik.
- d) Hamar egun naturaleko epean, egintza argitaratu deneko datatik.

7.- Hauetatik, zein ez da administrazio-prozedurako interesdunaren eskubidea:

- a) Prozedura bat izapidetzeko ardura duten SISZeko langileak identifikatzeko.
- b) Administrazio-erantzukizunaren presuntzioarena, kontrakoa frogatu ezean.
- c) Jatorrizko agiriak ez aurkezteko eta, arauz egin beharra badauka, horien kopia autentikatua eskuratzeko.
- d) Udalak ez badu epe barruan berariazko ebazpenik eman edo jakinarazten, administrazio-isiltasunak zer esan nahi duen jakitekoa.

8.- Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, eta lanpostu zerrendari gagozkiorik:

- a) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan, izendatua duten berariazko osagarria adieraziko da.
- b) Funtzionarioak, behin-behineko langileak eta aldi baterako langileak barne hartuko ditu.
- c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan, zein mailatan sailkatu diren adieraziko da, 1etik 40ra.
- d) Ekitaldiko aurrekontu-plantillari egokitzen ez zaizkion lanpostuak sartu ahal izango dira.

9.- Funtzionario-izaera galtzeko arrazoia da:

- a) Interesdunak ahoz uko egitea.
- b) Kargu publikorako erabateko ezintasunaren edo ezintasun bereziaren zigor erantsia.
- c) Zerbitzua bertan behera uztea dakarren diziiplina-zigor irmoa.
- d) Borondatezko erretiroa.

10.- Adieraz ezazu zein ez den SISZeko kide den funtzionario baten betebeharra:

- a) Nagusiak errespetatzea eta haien jarraibideak betetzea.
- b) Bere egitekoak direla eta ezagutzen dituen kontuak isilpean gordetzea.
- c) Zerbitzuaren martxa onean jarraitutasuna eta begikotasuna izaten saiatzea.
- d) Ezarritako lanaldia eta ordutegia estuki betetzea.

11.- Errendimendu falta nabarmena, agindutako lanak betetzetik inhibitu izana erakusten duena, nolako arau-haustea da?

- a) Oso larria.
- b) Larria.
- c) Arina.
- d) Ez da arau-haustea.

12.- Laneko jazarpen sexista:

- a) Sexu-arrazoiengatiko zeharkako diskriminaziotzat jotzen da.
- b) Sexu-arrazoiengatiko zuzeneko diskriminaziotzat jotzen da.
- c) Sexu-arrazoiengatiko diskriminazio anizkuntzat jotzen da.
- d) Ez da sexu-arrazoiengatiko diskriminaziotzat jotzen.

13.- SISZeko kideak agintaritzaren agentetzat jotzen dira:

- a) Beti.
- b) Zerbitzuan daudenean bakarrik.
- c) Zerbitzutik libre daudenean, edozein egoeratan.
- d) Zerbitzutik libre egonik ezbehar batean esku hartzen dutelarik, aldez aurretik beren izaera egiaztatuta.

14.- SISZeko kideen osasuna zaintzea:

- a) Nahitaezkoa da, beti.
- b) Zaintzaren emaitzak haien nagusiei komunikatu ahal zaizkie.
- c) Beharrezkoa denean, lan-harremana bukatuta gero ere luzatzen da.
- d) Azterketa eta proba guztiak balia daitezke, murrizketarik gabe.

15.- Aukeratu okerreko erantzuna. Larrialdi-egoerei aurre egiteko hainbat jarduera, zentro edo establezimenduri eska dakizkieken babes-neurriak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren arabera, administrazio-kontrolarik eta erregistrotik salbuetsita geratzen dira:

- a) Udaltzaingoaren instalazioak.
- b) SISZaren instalazioak.
- c) Arabako espetxeko instalazioak.
- d) Gasteizko epaitegietako instalazioak.

---

16.- Mendikate guztiek dituzte, gehiago edo gutxiago, izan handiko hainbat mendi. Aukera ezazu dagokion mendikatearekin parekatuta ez dagoen mendia:

- a) Aratz mendia, 1.445 m - Altzaniako mendiak.
- b) Oketa mendia, 1.031 m - Gorbeia mendigunea.
- c) Mota mendia, 1.315 m - Arkamo mendilerroa.
- d) Orisol mendia, 1.130 m - Arangio mendilerroa.

17.- RENFEren Bilbo-Castejón lineako Lezamako geltokian gasolioa isuri duen zisterna-bagoi bat dago geldirik. Aukera ezazu bertara iristeko biderik motzena, Gasteizko suhiltzaileen parketik.

- a) N-622, A-624, A-3616, A-4601, A-4602.
- b) N-622, A-624, A-625, Barrutxi auzoa (Lekamaña).
- c) N-622, A-624, A-3616, A-4603.
- d) N-622, A-624, A-4423, Inoso.

18.- Zein ibairen adarra da Cascajo ibaia?

- a) Omecillo ibaia.
- b) Baia ibaia.
- c) Zadorra ibaia.
- d) Ega ibaia.

19.- Mendi hauen artetik, zein daude Laudioen inguruan eta udalerraren barruan?

- a) Ganekogorta, 998 m, eta Gallarraga, 902 m.
- b) Alpitxu, 504 m, eta Elorritxugana, 721 m.
- c) Babio, 582 m, eta Astobitza, 577 m.
- d) Pagonabarra, 599 m, eta Idubaltza, 691 m.

20.- Zein parke naturaletan dago Olano mendia?

- a) Izkiko Parke Naturalean.
- b) Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalean.
- c) Gorbeia Parke Naturalean.
- d) Urkiolako Parke Naturalean.

21.- Zein menditan sortzen da Ugarana ibaia?

- a) Entzia mendilerroan.
- b) Urkillu mendilerroan.
- c) Elgea mendilerroan.
- d) Arangio mendilerroan.

22.- Zein mendilerrotan barrena doa GR-1 ibilbide luzea?

- a) Kodes mendilerroan barrena.
- b) Arkamoko mendilerroan barrena.
- c) Gibixoko mendilerroan barrena.
- d) Urkilla mendilerroan barrena.

23.- Zein errepide hartu behar da, Krutzetako mendatetik, Oletara iristeko?

- a) A-3616
- b) A-3914
- c) A-3614
- d) A-3941

24.- Inosoko kontzejura iristeko, zein udalerritatik egingo beharko genuke?

- a) Urkabustaiz
- b) Amurrio
- c) Zuia
- d) Aiara

25.- Zein ibairen adarra da Aldaikoerreka ibaia?

- a) Izoria ibaia
- b) Zadorra ibaia
- c) Nerbioi ibaia
- d) Altube ibaia

---

26.- Hauetako zeinetatik ez da igarotzen Gasteizko tranbia?

- a) Azeduia kalea
- b) Euskal Herria bulebarra
- c) Presa kalea
- d) Antso Jakitunaren kalea

27.- Parke hauetatik, zein dago mendebalderago, Gasteizko udalerrriaren barruan?

- a) Molinuevoko parkea
- b) San Martineko parkea
- c) Buradon Gatzaga parkea
- d) Arriagako San Joanen parkea

28.- Kale hauetatik, zein dira elkarrekiko perpendikular?

- a) Elorriagako atea - Ljubljana kalea
- b) Varsovia hiribidea - Nikosia kalea
- c) Bratislava kalea - Iliada ibilbidea
- d) Tallin kalea - Riga kalea

29.- Kale hauetatik, zein dira elkarrekiko perpendikular?

- a) Pintore kalea - Santa Ana kantoia
- b) Santa Maria kalea - Gasteiz kalea
- c) Bakardade kantoia - Hedegile kalea
- d) San Bizente Paulekoaren kalea - Barnekale Berria

30.- Kale hauetatik, zeinetan daude suhiltzaileen kamioiekin zirkulatzeko zailtasunik handienak, estutasuna dela eta?

- a) Zendaguren kalea
- b) Zorrostea kalea
- c) Bidegana kalea
- d) Gasteizko Taldearen kalea

31.- Kale hauetatik, zein dago urrutien Gasteizko suhiltzaileen parketik (Agirrelanda, 8)?

- a) Marie Curie kalea
- b) Aranburutarren kalea
- c) Apraiztarren kalea
- d) Guayaquil kalea

32.- Agirrelanda kaleko 8.eko suhiltzaileen parkean bazaude, zein da biderik egokiena Gurutze Berdearen kaleko etxebizitza bateko sutera joateko?

- a) Pozoa kalea, Arriagako atea, Zaramaga kalea, Madril kalea, Andaluzia kalea, Leon kalea, Gurutze Berdearen kalea
- b) Pozoa kalea, Arriagako atea, San Ignazio Loiolakoaren kalea, Bilbo plaza, Frantzia kalea, Arana, Judimendi hiribidea, Leon kalea, Gurutze Berdearen kalea.
- c) Pozoa kalea, Arriagako atea, Simon Anda kalea, Basoa kalea, Gorbeia kalea, Gurutze Berdearen kalea
- d) Pozoa kalea, Arriagako atea, Venezuela kalea, Paraguai kalea, Gorbeia kalea, Gurutze Berdearen kalea

- 33.- Agirrelanda kaleko 8.eko suhiltzaileen parkean bazaude, zein da biderik egokiena Pablo Morillo kaleko ibilgailu baten sutera joateko?
- Agirrelanda kalea, Artapadura kalea, Luis Olariaga kalea, Baiona kalea, Iruñea kalea, Antonio Machado kalea, Pablo Morillo kalea
  - Pozoa kalea, Arriagako atea, Juan Garai kalea, Latinoamerika plaza, Euskal Herria bulebarra, Ramon Rubial kalea, Pablo Morillo kalea
  - Pozoa kalea, Arriagako atea, Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea, Aldabeko plazatxo, Zerkabarren kalea, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, Oto hiribidea, Antonio Machado kalea, Pablo Morillo kalea
  - Agirrelanda kalea, Artapadura kalea, Arriagako atea, Zadorra hiribidea, Alibarra kalea, Oto hiribidea, Sansomendi kalea, Paula Montal kalea, Antonio Machado kalea, Pablo Morillo kalea
- 34.- Adieraz ezazu okerra dena:
- Adana plaza Aretxabaleta-Gardelegin dago.
  - Alexandre Dumas plaza Eharin dago.
  - Anaheim plaza Salburuan dago.
  - Gregorio Altube plaza Zaramagan dago.
- 35.- Manuel Iradier kaleko zein zenbaki da Iradier Arenatik gertuen dagoena?
- 2.a
  - 3.a
  - 85.a
  - 84.a
- 36.- Non dago Duende pasabidea?
- Errioxa kalearen bukaeran
  - Foru kalearen bukaeran
  - San Antonio kalearen bukaeran
  - Ez dago halakorik
- 37.- Gasteizko zein jauregi da Tangerreko (Maroko) udalerrarena?
- Eskoriatza-Eskibel jauregia
  - Araba-Eskibel jauregia
  - Sokaren etxea
  - Goiuri jauregia
- 38.- N-104 errepidean barrena Nafarroatik etorriz, nondik sartzen da Gasteizko udalerrira?
- Ilarratza
  - Arkauti
  - Salburua
  - Matauku
- 39.- N-240 errepidean barrena Bizkaitik etorriz, nondik sartzen da Gasteizko udalerrira?
- Miñaogutxia
  - Miñao
  - Gamarragutxia
  - Gamarra
- 40.- N-102 errepidean barrena, Burgos aldera, non ateratzen da Gasteizko udalerritik?
- Ariniz
  - Gometxa
  - Zabalgana
  - Margarita

41.- Arabako Batzar Nagusien eraikinaren teilatuan sutea dagoela abisu eman digute. Identifika itzazu eraikinera iristeko kalea eta aurkituko dugun arazo nagusia.

- a) Prado kalea - Tranbia
- b) Vicente Goikoetxea kalea - Tranbia
- c) Prado kalea - Teleaginte-bolardearekin mugatutako sarbidea
- d) Vicente Goikoetxea kalea - Teleaginte-bolardearekin mugatutako sarbidea

42.- Kutaisi kalea ..... dago eta ..... da:

- a) Alde Zaharrea - oinezkoentzako kalea
- b) Babesgabetuen kalean - irteerarik gabeko kalea
- c) Alde Zaharrea - irteerarik gabeko kalea
- d) Babesgabetuen kalean - oinezkoentzako kalea

43.- Aukera ezazu Mantelitarren kalea ongien definitzen duena:

- a) Sarrera-irteera bakarreakoa
- b) Hiru errei dituen bidea
- c) Noranzko bakarreako bidea
- d) Oinezkoentzako kalea

44.- Txagorritxuko ospitaleko arropa-garbitegian sutea dagoela abisu eman digute. Ibilgailuen ohiko sarrera kale honetatik dela jakin behar duzu:

- a) Euskal Herria bulebarra
- b) Jose Atxotegi kalea
- c) Pablo Neruda kalea
- d) Francisco Leandro Viana kalea

45.- Gasteizko biztanleriari buruzko 2017ko txostenaren arabera, zein da biztanle gehien dituen auzoa?

- a) Salburua
- b) Arriaga-Lakua
- c) Zabalgana
- d) Sansomendi

46.- Gasteizko biztanleriari buruzko 2017ko txostenaren arabera, zein da biztanle gehien dituen udalerriko menpeko toki erakundea?

- a) Miñao
- b) Armentia
- c) Gamarra
- d) Betoñu

47.- Behenafarroa kalea ..... auzoan dago eta ..... da:

- a) Zaramaga - sarrera-irteera bakarreakoa
- b) Anglo-Vasco - oinezkoentzako kalea
- c) Zaramaga - oinezkoentzako kalea
- d) A eta C zuzenak dira.

48.- Mercedes Benz enpresan sutea dagoela abisu eman digute. Bi sarbide posible dituela jakin behar duzu, eta hauek dira:

- a) Areatza kalea eta Oto hiribidea
- b) Zurrupitieta kalea eta Oto hiribidea
- c) Zurrupitieta kalea eta Areatza kalea
- d) Mariturri bulebarra eta Oto hiribidea

49.- Haur bat Ahate Iturri plazatxoan harrapatuta dagoela abisu eman dute. Nondik sartuko gara bertara?

- a) Errementari kaletik
- b) Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kaletik
- c) Alarma faltsua da; ez dago halako iturririk Gasteizen
- d) A eta B zuzenak dira

50.- Kloro-isuria izan da Iparralde gizarte-etxeke igerilekuetan. Nondik joko dugu bertara?

- a) Zuberoa plaza
- b) Behenafarroa kalea
- c) Karlos I. Enperadorearen plaza
- d) Errege-Erregina Katolikoen kalea

---

51.- Baso-sute batean, orientazioaren arabera, zein izan daitezke kontrolatzeko suterik zailenak?

- a) Hegoaldera orientatutako magal bateko suteak
- b) Hegoaldera orientatutako magal bateko suteak, komunikazio-bideak gurutzatzen dituztenak, hala nola trenbideak
- c) Iparraldera orientatutako aldapa bateko suteak
- d) Suteak berak sortutako haizearen eraginez pizten diren suteak

52.- Baso-sute batean, su leherkorrez ari garelarik, zertaz ari gara?

- a) Inbertsio termikoa hausten deneko egoeraz.
- b) Azaleko su batetik adaburuetako su batera bat-batean igarotzeaz.
- c) Sute batean hainbat faktore elkartzeaz, hala nola aldapa, haizea eta muturreko tenperaturak.
- d) Erregaien pirolisiak sortutako gasen erretze espontaneoek zor zaizkien leherketa txikiak gertatzen direneko egoeraz.

53.- Haizeak sute baten garapenean eragiten du. Haize topografikoen kasuan, gauez sortzen diren behearanzko haranetako haizeen intentsitatea tarte hauetan egon ohi da:

- a) orduko 16 eta 30 km artean
- b) orduko 4 eta 10 km artean, egunsenti aldera
- c) orduko 6 eta 13 km artean
- d) orduko 5 eta 12 km artean

54.- Indarraren arabera sailkatu ohi dira haizeak, Beaufort eskalaren arabera, eta bere zehaztapenen arabera, hausten diren olatu handiak daudenean eta itsasontzi txikientzat arriskua dagoenean, honela deitzen dira:

- a) Haize oso gogorra
- b) Ekaitza
- c) Ekaitz indartsua
- d) Haize gogorra

55.- Lurrikara baten intentsitatea neurtzeko MSK eskalaren arabera, eta haren ondorioen mailakako sailkapenaren barruan, zein mailatan esaten da iturburuak aldatu egiten direla, hau da, batzuk lehortu egiten direla eta beste batzuk sortzen?

- a) VIII. mailan
- b) IV. mailan
- c) VII. mailan
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena



56.- Non gertatzen da perkolizatze-fenomenoa?

- Txaketa bikoitzeko mahuketan, babesteko oihal-zuntzezko azken geruzan,  $40 \text{ kg/cm}^2$  lan-presioak gaintitzen direnean.
- Lihozko mahuketan, urak hauetan barrena zirkulatzean, exudazioa gertatzen da kanpoko azalera, eta busti egiten ditu, eta erre daitezela galarazten.
- Basorako mahuketan; eta eragozpena da karga-galera handia eragiten duela fenomeno horrek.
- Hiru geruzako mahukan, kautxua gehitu zaiolarik, zeinek, presiopean jartzen delarik, azalera exudazioa ahalbidetzen baitu, eta hartara suarekiko erresistentzia hobetzen.

57.- Su-itxalgailu eramangarriak erabiltzean, itxaltzeko agentea nonahi botatzea arriskutsutzat jotzen da. Nolako su-itxalgailuek sor ditzakete, albo-ondorio gisa, suak berak sortutakoak baino kalte handiagoak, esate baterako ekipo elektrikoetan?

- Ur-turrusta botatzen duten su-itxalgailuak.
- CO<sub>2</sub>ko su-itxalgailuak.
- Hautsezko su-itxalgailuak.
- Ur lainoztatua botatzen duten su-itxalgailuak.

58.- Butanoaren irakite-puntua, °C-tan, hau da:

- 0,05 °C
- 0,5 °C
- 0,5° C
- 0,05 °C

59.- PGL hartzeko instalazioetan biltegitratzea leku hauetan aurki genezake:

- Erdi-lurperatutako edo lurperatutako biltegitan.
- Lurperatutako edo aireko biltegitan.
- Aireko edo erdi-lurperatutako biltegitan.
- Lurperatutako edo azalerako biltegitan.

60.- PGL biltegi baten betetze-maila hemen aurkituko dugu:

- Betetzeko balbulan.
- Zerbitzu-balbulan.
- Kontrol-balbulan.
- Fase likidoko balbulan.

61.- Polietileno-kondukzioak konpresioz ixteko tresna bat da polietileno hodiak itotzekoa. Plaka batzuk ditu alboetan, hainbat neurriekin, eta bertan bi zifra daude grabatuta. Bigarrenak, kanpoko diametroaren eta hodiaren lodieraren arteko proportzioa adierazten du. Garrantzitsua da jakitea, bigarren zifra horri gagozkiolarik:

- SDR balioa zenbat eta txikiago, orduan eta hodiaren lodiera handiago, hau da, erresistentzia txikiagoa estutzean.
- SDR balioa zenbat eta txikiago, orduan eta hodiaren lodiera txikiago, hau da, erresistentzia handiagoa estutzean.
- SDR balioa zenbat eta handiago, orduan eta erresistentzia handiagoa estutzean.
- SDR balioa zenbat eta handiago, orduan eta hodiaren lodiera txikiago, hau da, erresistentzia txikiagoa estutzean.

62.- Igogailu bateko erreskate batera joaten den suhiltzaile-taldeko kideen zereginen banaketan hainbat fase daude. Esate baterako, igogailuaren zulotik erortzeko arriskua badago, fase honekin erlazionatzen dugu:

1. fasea.- Berehalako erreakzioak.
2. fasea.- Igogailuaren mekanismoak manipulatzeko.
3. fasea.- Harrapatuak erreskatatu eta ebakutzeko.
- a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

- 63.- Zirkuitulaburrek eragindako suteak daude, eta printzipioz aztarnarik uzten ez duten kausak kontuan izan beharra dago, hala nola:
- Gainkargak sortzen dituzten itzulera-korronteak eta ibiltariak.
  - Zirkuitu paraleloa sortzen duen neutro pibotatzaile baten presentzia.
  - Harmonikoak eta instalazioan bat-bateko tenperatura-aldaketak eragiten dituzten zirkuitu paraleloak.
  - Harmonikoak eta neutro flotatzaile baten presentzia.
- 64.- Instalazioetan zirkuitulaburrek kalteak eragin ditzatela ekiditeko, hauek instalatzen dira:
- Sentsibilitate baxuko diferentzialak, magnetotermikoak, disipadoreak, fusibleak eta abar.
  - Kutxa isolatzaileak eta disjuntoreak edo segurtasun-konektoreak.
  - Etengailu magnetotermikoak, fusibleak eta abar.
  - Instalazioa tenperatura jakin batera iristen denean aktibatzen diren diferentzialak edo mozgailuak.
- 65.- Arrisku-etiketen mota hauetatik, zeinek ez dute kolore gorria hondoan?
- 1, 2, 4, 5.1, 6 eta 9 motak.
  - 1, 3, 4, 5 eta 7 motak.
  - 1, 2, 6, 7 eta 9 motak.
  - 1, 2, 5.2 eta 9 motak.
- 66.- Zein izango da ongaria (amonio-nitratoa) daraman zisterna-kamioi baten istripuan (PTC4) suhiltzaileek aintzat hartu beharreko arrisku nagusia?
- Sutea.
  - Leherketa.
  - Ingurumen-kutsadura.
  - BLEVE.
- 67.- Oso lurrunkorra eta batere disolbagarria ez den produktu batekin esku-hartu ondoren, zein litzateke aukerarik onena, zure ustez, suhiltzailea lehenik eta behin deskontaminatzeko?
- Urarekin.
  - Aire zabalean.
  - Disolbatzaile egokiekin.
  - Aparrarekin.
- 68.- Areto itxi batean NH<sub>3</sub> fase gaseosoan isuri delarik, zein antzemate- eta neurketa-tresna da gomendagarria, substantzia horren gasen presentzia antzemateko?
- Hodi kolorimetrikoa.
  - Esplosimetroa eta oxigeno-neurgailua.
  - PH neurgailua.
  - Intentsimetroa.
- 69.- Arnasketaren fisiologian, hondar-edukiera funtzionalaz ari garelarik, honetaz ari gara:
- Gehieneko arnasbeheraren ondoren biriketan geratzen den airearen bolumena.
  - Birikek normal funtzionatzeko beharko duten aire-bolumena.
  - Arnasbehera normalaren ondoren biriketan geratzen den airearen bolumena.
  - Arnasketa normalarekin biriketan sartzen eta ateratzen den aire-bolumena.
- 70.- Likido sukoi batekin istripua gertatzen delarik, zein ezaugarri fisiko-kimiko interesatzen da baloratzea?
- Produktuaren lurrun-presioa eta gartze-puntua.
  - Produktuaren lurrun-presioa, gartze-puntua eta dentsitatea.
  - Produktuaren lurrun-presioa, gartze-puntua, dentsitatea eta disolbagarritasuna.
  - Produktuaren lurrun-presioa, gartze-puntua, dentsitatea, disolbagarritasuna eta presio kritikoa.

71.- Merkantzia arriskutsua garraiatzen duen kamioi bati zisterna hausten bazaio, eta haren kanpoaldean panel laranja bat ageri bada, 30. arrisku-kodearekin, 3. motako etiketa batekin eta "ingurumenerako kaltegarria den gaia" adierazten duen markarekin, zein babes-maila aukeratuko zenuke isuria tapatzeko?

- a) III. maila, suarekiko babesarekin
- b) II-b maila
- c) II-a maila
- d) I. maila

72.- Zer esanahia dauka BC 35/10 – 4/40 idazkuna duen suhiltzaileen ponpa zentrifugo batek, UNE 23 900-83 arauaren arabera?

- a) Ponpa konbinatua; presio baxua (emari nominala, 350 l/min-tik 10 barrera). Presio handia (emari nominala, 40 l/min-tik 40 barrera).
- b) Ponpa konbinatua; presio baxua (emari nominala, 3.500 l/min-tik 10 barrera). Presio handia (emari nominala, 400 l/min-tik 40 barrera).
- c) Ponpa konbinatua; presio handia (35 bar, 1000 l/min-ko emari nominalarekin). Presio baxua (4 bar, 400 l/min-ko emari nominalarekin).
- d) Ponpa konbinatua; presio handia (350 bar, 1000 l/min-ko emari nominalarekin). Presio baxua (4 bar, 4000 l/min-ko emari nominalarekin).

73.- Adieraz ezazu zuzena iruditzen zaizun apar-instalazioa:

- a) Ponpa bidez aparra sortzeko sistema automatikoa, 45 mm-ko berariazko irteera ponpatik, 45 mm-ko hainbat mahuka-tarte eta, azkenik, hedapen ertaineko lantza puntan 3-4 bareko presioa duena.
- b) Ponpa bidez aparra sortzeko sistema automatikoa, 45 mm-ko berariazko irteera ponpatik, 45 mm-ko hainbat mahuka-tarte eta, azkenik, hedapen ertaineko lantza puntan 6-7 bareko presioa duena.
- c) Ponpa bidez aparra sortzeko sistema automatikoa, 70 mm-ko berariazko irteera ponpatik, 70 mm-ko hainbat mahuka-tarte, 70/45eko murrizketa, 45 mm-ko mahuka-tarte eta, azkenik, hedapen ertaineko lantza puntan 3-4 bareko presioa duena.
- d) Ponpa bidez aparra sortzeko sistema automatikoa, 70 mm-ko berariazko irteera ponpatik, 70 mm-ko hainbat mahuka-tarte, 70/45eko murrizketa, 45 mm-ko mahuka-tarte eta, azkenik, hedapen ertaineko lantza puntan 6-7 bareko presioa duena.

74.- Urak 20 m x 15 m-ko eta 140 cm-ko altuerako soto bat hartu duelarik, ura atera beharra dago. Hauetako zeinek egingo du denborarik laburrenean?

- a) 0,005 m<sup>3</sup>/s-ko bi elektroponpa.
- b) 710 l/min-ko elektroponpa bat.
- c) 20.000 l/h-ko bi elektroponpa.
- d) 0,4 m<sup>3</sup>/min-ko elektroponpa bat.

75.- 70 mm-ko diametroko mahuka baten segidan beste mahuka bat jarri nahi duzu, barruko ura abiadura bikoitzean zirkulatzeraz igaro dadin. Diametro hauetatik, zein da helburu hori lortzetik gertuen jarriko zaituena?

- a) 45 mm
- b) 25 mm
- c) 35 mm
- d) 50 mm

76.- Adieraz ezazu erantzun zuzena, bi substantzia hauen lurrun-presioak (PrV) aztertuz: A (PrV 1596 mmHg) eta B (172 mmHg).

- a) Baldintza normaletan: B substantzia A substantzia baino lurrunkorragoa da.
- b) Tenperaturaren arabeko lurrun-presioaren aldakuntzak irudikatzen dituen grafiko batean: A substantziaren irakite-puntu normala B substantziaren irakite-puntua baino baxuagoa da.
- c) Bi substantzien lurrun-presioak gora egiten du, modu linealean, tenperaturak gora egitearekin.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

77.- Sable-zerra. Adieraz ezazu erantzun zuzena.

- Orri unibertsalekin era guztietako materialak moztu daitezke, nahiz eta mozketa geldoagoa izango den berariazko orriarekin.
- Gomendatutako karrera-kopurua erregulatzailereen bitartez hauta daiteke aldez aurretik.
- Funtzionamendu pendularrari esker, mozketa-errendimendua areagotu daiteke hautatutako materialetan, hala nola, adibidez, egurraren eratorrietan.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

78.- 14.000 kg-ko pisua duen hormigoizko bloke bat jaso nahi baduzu, kuxin pneumatikoen konfigurazio hauetatik, zein iruditzen zaizu egokiena mugimendu hori egiteko? Bi kuxin pneumatiko daude erabilgarri, bakoitza 7 kg/cm<sup>2</sup>-ra presurizatua, eta 40 cm<sup>2</sup> x 35 cm<sup>2</sup>-ko.

- Bi kuxinak seriean jarriko dira.
- Bi kuxinak paraleloan jarriko dira.
- Bi kuxinak seriean jarriko dira, oinarrian 15 cm-ko taula bat dutela.
- Hirugarren kuxin bat behar da, nahi den mugimendua egiteko.

79.- Lehentasuna duten ibilgailuentzako trafiko-arauak. Adieraz ezazu erantzun zuzena.

- Larrialdi batera joateko orduan, segurtasunari eta bizkortasunari dagokionez, gomendagarria da ahalik eta kale edo bide zabalenak eta noranzko bakarrekoak erabiltzea. Autobideak erabiltzea, sarrerak eta irteerak ondo ezagutzen direla ziurtaturik. Atzerako ispiluak etengabe kontrolatzea, edozein maniobraren aurretik. Ez aurreratzea inoiz sestra-aldaketa eta bihurtzeetan, edo eskuinetik egitea. Segurtasun-distantzia handitzea, aurreko ibilgailuak ustekabean gelditzen badira ere. Muturreko kasuetan bakarrik zirkulatzea debekatutako noranzkoan. STOPak, semaforo gorriak eta bidegurutzeak trafikoa geldirik dagoenean bakarrik pasatzea.
- Larrialdietako ibilgailuetako gidariek zuhurtasunez erabili beharko dute beren jaurbide berezia, eta larrialdi-zerbitzuren bat betetzen zirkulatzen ari direnean baino ez. Kontu handia hartu behar dute elkarguneetan, pasatzeko lehentasuna ez hausteko eta semaforoetako seinaleak errespetatzeko, eta punta-puntako arretaz jokatu behar dute halakorik egin aurretik. Hartara, ziurtasun osoz jakin behar dute, beste ibilgailuetako gidariak geratu egin direla edo pasatzen uzteko asmoa dutela.
- Sirenak ez du lehentasunik ematen, besterik gabe eskatu egiten du. Ez erabili sirenak neurritz gain, efikazia zaintzeko.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

80.- Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana. Eraginkortasuna. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- Hainbat jarduera-maila aurreikusten ditu, larrialdiaren 3 faseen arabera: alerta, larrialdia eta errekupeazioa.
- Hainbat jarduera-maila aurreikusten ditu, egoeraren eta larrialdiaren faseen arabera: alerta-fasea (0, 1, 2 eta 3 egoerak), larrialdi-fasea eta errekupeazio-fasea.
- Hainbat jarduera-maila aurreikusten ditu, egoeraren eta larrialdiaren faseen arabera: alerta-fasea, larrialdi-fasea (0, 1, 2 eta 3 egoerak) eta errekupeazio-fasea.
- Hainbat jarduera-maila aurreikusten ditu, egoeraren eta larrialdiaren faseen arabera: alerta-fasea, larrialdi-fasea eta errekupeazio-fasea (0, 1, 2 eta 0 egoerak).

81.- Larrialdiei aurre egiteko euskal sistema. Ondoko neurri hauetatik, zein iruditzen zaizu egokiena Euskalmetek — Euskal Meteorologia Agentziak — hurrengo 24 orduetarako haizea dela eta alerta laranja iragartzen duen kasurako? Eragindako zonetako bat Gasteizko udalerrria izango da, oso-osorik, bai haizeak jo ohi duen lekuetan, bai haizeak jo ohi duen lekuetan.

- Gasteizko Udaleko Autobabes Plana aktibatzea, haizeteagatik.
- Taktika operatiboa aktibatzea. HAIZEA. H1.
- Euskadiko Babes Zibilaren Plana aktibatzea, alerta-fasean.
- Erantzun guztiak zuzenak dira.

82.- Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana. Adieraz ezazu erantzun okerra:

- a) Plana aktibatuko da, baldin eta, egoeraren larritasuna dela-eta, plan horretan jasotako erantzun-egitura osorik martxan jarri behar bada.
- b) Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren aktibazioa, bai eta alerta-fasea ere, biztanleriari jakinarazi beharko zaio, planean bertan ezarritako bitartekoen bidez.
- c) Plan honen operatibitateak eskatzen duen malgutasuna dela-eta, funtsezkoa da planaren hainbat aplikazio-modu ezartzea, honako hauen arabera: a) Aurreikusitako larrialdi-egoera bakoitza. b) Gertakariaren bilakaera, dela larrialdia bat-batean piztu bada dela arriskuaren bilakaera motelaren ondorio bada. c) Lurraldean duen eragina, horren arabera aktibatuko baita plana eremu jakin baterako bakarrik edota lurralde osorako.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

83.- Zein taktika operatibo dagokie isuri bat, sutea edo gas hidrokarburoen (metanoa, propanoa, butanoa, gas naturala) leherketa gertatu deneko egoera guztiei?

- a) IGA
- b) GASA
- c) SG 1
- d) SG 10

84.- Gertakari hauetako zeini dagokie PG 1 taktika operatiboa aktibatzea?

- a) Abisu bat jaso da, Wellingtongo Dukearen kalean tranbiak pertsona bat harrapatu duela.
- b) Abisu bat jaso da, Larrugile kalean aldamiotako erroi bat erori dela, oinezko baten gainean.
- c) Abisu bat jaso da, Oreitiasoloko industrialdeko fabrika batean prentsa hidrauliko batek besoa harrapatu diola langile bati.
- d) Abisu bat jaso da, Hegoalde gizarte-etxeko igerilekuan erabiltzaile ugari daudela, begietan azkura dutenak, eta mukosak, eta arnasa hartzeko arazoak.

85.- Zein taktika operatibori dagokio Amadeo García de Salazar plazan aparkatutako bi ibilgailuren sutea?

- a) SG 10
- b) SG 3
- c) SG 2
- d) SG 1

86.- CO eta hemoglobina konbinazioari ..... deitzen zaio, eta oxigenoarekin baino ..... bider bizkorrago gertatzen da.

- a) Oxihemoglobina. 200 bider.
- b) Karboxihemoglobina. 200 bider.
- c) Dioxihemoglobina. 200 bider.
- d) Karboxihemoglobina. 100 bider.

87.- Suhiltzailearen eskuliburuaren arabera, CO kontzentrazio mortal zenbatetsia, 10 minutuan, honako hau da:

- a) % 0,5
- b) % 0,05
- c) % 0,1
- d) % 0,01

88.- Honelakoa izan daiteke erregulatzailearen eta maskararen arteko konexioa:

- a) Baioneta
- b) Haria
- c) ¾-eko bira
- d) a) eta b) zuzenak dira.

- 89.- Kalkula ezazu 6,8 litroko edukierako botila batekin eta 200 bareko presioarekin guztira izango duzun autonomia:
- 1700
  - 1200
  - 1360
  - 2040
- 90.- Esku-hartze batean, manometroari begiratu diozu eta 200 bar geratzen zaizkizu 6 litroko botila duen arnasa hartzeko ekipo autonomoan. Kalkula ezazu lan egiteko autonomia, kontsumoa 50 l/min-koa delarik, eta alarma akustikoa pizteko presioa 50 barekoa.
- 18 min
  - 19 min
  - 20 min
  - 21 min
- 91.- Garaje bateko sutean ari zara lanean; 10 minutu kostatu zaizu sarreratik bertara iristea. Bat-batean alarma akustikoak jo du. Ateratzerik izango duzu, arazorik gabe?
- Bai, arazorik gabe. Gertu dago sarrera.
  - Ez. Segurtasun-arazoak izango ditut.
  - Bai. Erreserbaren mende egongo naiz.
  - Bai, oxigenoa aurrezten badut.
- 92.- Berebiziko garrantzia duen elementua da, zirkuitu hidrauliko batean:
- Husteko balbula
  - Zilindroa
  - Gainpresio-balbula
  - Banatzaila
- 93.- Harrapatutako pertsonak askatzeko ekipo hidraulikoei dagokienez, adieraz ezazu zein den zuzena:
- "Core" sistemak ez dauka banatzailerik.
  - Lan-presioa 600-700 kg/cm<sup>2</sup>-koa da.
  - Zizailaren indarririk handiena puntetan dago.
  - Bereizgailuaren indar nominala 20-30 t-koa da.
- 94.- Zein da kuxin pneumatikoen konexio-sekuentzia zuzena?
- Botila – mahuka – presio-erreguladorea – agintea – mahuka – kuxina.
  - Botila – agintea – mahuka – presio-erreguladorea – mahuka – kuxina.
  - Botila – mahuka – presio-erreguladorea – mahuka – agintea – mahuka – kuxina.
  - Botila – presio-erreguladorea – mahuka – agintea – mahuka – kuxina.
- 95.- Material hauetatik, zeinek dauka eroankortasun termikoaren koefizienterik handiena?
- Izotza
  - Hormigoia
  - Zura
  - Beira
- 96.- Zeinek du sukoitasun-tarterik handiena?
- Azetona
  - Metanola
  - Metanoa
  - Karbono monoxidoa

97.- Eraikin bat kolapsatuz gero, zein eratakoan izango dugu inor biririk aurkitzeko aukera gutxien?

- a) Zeiharra
- b) Plano-gainezarpena
- c) Enara-habia
- d) V formakoa

98.- Zer da *puntero* bat?

- a) Habea edo jazena zurkaizteko elementu bat.
- b) Hegala zurkaizteko elementu bat.
- c) Zurkaizteko elementu inklinatu bat.
- d) Ez dago halako zurkaizteko elementurik; erreminta bat baino ez da.

99.- Adieraz ezazu zure ustez zurezko egitura baten ezaugarriekin eta suaren aurrean duen jokabidearekin bat ez datorrena.

- a) Beroarekiko erresistentzia mekaniko handia.
- b) Dilatazio-koefiziente txikia.
- c) Eroankortasun termiko apala.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

100.- Adieraz ezazu, NTP-40ren arabera, lehenik piztuko litzatekeen detektagailua:

- a) Ke-detektagailu optikoa
- b) Detektagailu ionikoa
- c) Tenperatura detektagailua
- d) Garren detektagailua